





Pintxa urtxintxa basoan dabil. Abendua da, zeruan hodeiak daude eta hotz handia egiten du.

Pintxa urtxintxak etxe bat ikusi du; tximiniatik kea ateratzen da. Nor den ikustera joatea pentsatu du.




Leihotik begira jarri da eta ez du inor ikusi, baina lurrean opari piloa zegoela konturatu da: “Norentzat ote dira opari horiek?”. Mahai baten gainean pipa bat zegoen: “Norena ote da?, Nor bizi ote da etxe honetan?”. Etxeari buelta ematen ari dela, zerbait ikusi du.







“Asto bat da! Norena ote da?”

Bat-batean norbait ikusi du: “Nor ote da? Zertan ari da?”



Txapela du buruan, gizona da eta oso tripa handia du.

“Baina, baina, zertan ari da?” pentsatu du Pintxa urtxintxak. “Zer da gauza beltz-beltz hori? Ai, ama! IKATZA da!”.



“Ai ene,... astoa..., tripa handia..., txapela..., opariak... eta ikatza!”.



OLENTZERO

“Olentzero da!”

Olentzerok dena prest du. Opariak eta ikatza astoaren gainean jarri ditu:

–Kaixo, urtxintxa!

–Kaixo, Olentzero!

–Zer moduz zaude?

–Ongi!

–Txintxoa izan zara ala bihurria?

–Txintxoa, Olentzero, oso txintxoa!







– Beno, ba, orduan zuretzat ere izango dut oparitxo bat. Ea ba!

– Eskerrik asko!

Pintxa urtxintxak oparia ireki du eta...



– Txano bat! Eskerrik asko, Olentzero! Txanoarekin ez dut hotzik pasatuko neguan! lujuuu!



–Aizu, urtxintxa, laguntzaile bat behar dut; gustatuko al litzaizuke nire laguntzailea izatea Abartzuza herrian?

–Bai, bai.

–Ea, ba, zatoz gurekin. Menditik herrira joan behar dugu eta bidea luze-luzea da. Igo nire astoaren gainean eta goazen hurrei opariak banatzera.